

AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITA ENPLEGUAREN EUSKAL FOROAREN ERREGELAMENDUA EGIN AURRETIK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak, enpleguaren arloan eskumena duenak, Enpleguaren Euskal Foroaren antolaketa eta funtzionamenduaren erregelamendua arautuko duen dekretua izapidetzeko prozedura hastea aurreikusi du.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua xedatzen duenez, xedapen orokor bat idatzi aurretik, kontsulta publikoan jasoko da herritarren iritzia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taularen bidez.

Kontsultak honako alderdi hauek aipatu behar ditu:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Horregatik, erregelamendu-xedapena egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da, herritarrek eta eragindako gainerako erakundeek parte hartzeko eta planteatzen den arauari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten, eragindako sektoreen artean ahalik eta parte-hartze eta adostasun handiena lortzeko.

Horregatik guztiatik, kontsultak:

- Erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei zabaltzen zaie, bai eta etorkizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde, entitate edo elkarte guztiei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratuko da.

Hogei egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta erakundeek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten. Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen duen hasiera-fasearen barruan.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz, honako hau



EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aldez aurretik herritarrei kontsulta egitea, Enpleguaren Euskal Foroaren antolaketa eta funtzionamenduaren erregelamendua arautzen duen dekretua egin aurretik.

Bigarrena.- Herritarrek, egoki baderitzote, hogei egun balioduneko epean helarazi ahal izango dute ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritzia, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektroniko datan.

MIGUEL TORRES LORENZO

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legeak (EEL), 83. artikuluan, Enpleguaren Euskal Foroa sortzen du, enplegu-politika publikoetan parte hartzeko organo gisa, enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita.

EELk, enplegu-politika publiko eraginkorrak eta parte-hartzaileak bultzatzeko konpromisoan, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politiken diseinuan, garapenean eta ebalazioan hainbat eragilek parte hartzeko gune formal bat eratzen du.

A) EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Enpleguaren Euskal Foroaren osaera, kideen izendapena eta antolaketa- eta funtzionamendu-araubidea zehaztuko dituen erregulazioa ezartzeak partaidetza-organoren horren benetako abiaraztearekin eta eraginkortasunarekin lotutako hainbat arazo konpontzea du helburu:

- Ordezkaritza-irizpideak zehaztea: EELaren 83. artikulua foroan ordezkaritza izango duten erakundeak zerrendatzen baditu ere, ez dira zehazten horietako bakoitzeko ordezkarikopurua zehazteko irizpide espezifikoak, ezta eragile garrantzitsu guztien eta gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua eta eraginkorra bermatzeko mekanismoak ere.
- Izendatzeko prozedurak zehaztea: EELk ez du prozedura zehatzik ezartzen entitate eta erakunde bakoitza ordezkatuko duten kideak izendatzeko.
- Antolaketako eta funtzionamenduko oinarritzko arauak definitzea: legeak ez ditu foroaren barne-funtzionamenduko alderdiak definitzen, hala nola bileren aldizkakotasuna, erabakiak hartzeko mekanismoak, lantaldeak sortzea, adituen parte-hartzea edo proposamenak eta gomendioak egiteko prozedurak.
- Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bermatzeko beharra: EELren 83.3 artikulua ezartzen du gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatu behar dela foroaren osaeran. Erregelamendu bidezko garapenean zehaztu behar dira kideak izendatzean oreka hori bermatzeko mekanismoak.

B) ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Enpleguaren Euskal Foroaren osaera, kideen izendapena eta funtzionamendu-araubidea zehazten dituen erregelamendu-garapena onartzea beharrezkotzat eta egokitatzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

- Lege-agindua: EELren 83.3 artikulua berariaz ezartzen du osaera, kideen izendapena eta antolaketa- eta funtzionamendu-araubidea erregelamendu bidez zehaztuko direla. Beraz, araudia garatzea ezinbesteko baldintza da foroa erabat eraginkorra izan dadin.
- Partaidetza-organoa benetan abian jartzea: Enpleguaren Euskal Foroaren funtsezko alderdiak argi arautu gabe ezin izango da enplegu-politika publikoetan parte hartzeko gune gisa eratu, ezta modu eraginkorrean jardun ere.
- Enplegu-politiken gobernantza-eredua osatzeko beharra: EELk gobernantza-eredu bat diseinatzen du, elkarriketa sozialari eta gauzatu beharreko hainbat eragileren parte-harteari protagonismoa ematen diena.

C) ARAUAREN HELBURUAK

Erregelamendu-garapen horren helburu nagusia da arau-esparru argi eta zehatz bat ezartzea, Enpleguaren Euskal Foroa enplegu-politika publikoetan parte hartzeko organo gisa eratu eta eraginkortasunez funtzionatu ahal izateko. Helburu espezifiko hauek ditu, besteak beste:

- Foroaren osaera zehatz-mehatz definitzea, kide diren erakunde eta organizazio bakoitzaren ordezkari-kopurua zehaztuz, enpleguaren arloko adierazgarritasun- eta garrantzi-irizpideak kontuan hartuta. Gainera, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzen du osaeran.
- Foroaren antolaketa- eta funtzionamendu-araubidea arautzea, honako alderdi hauek barnean hartuta: bileren maiztasuna, deialdi-mekanismoak, eztabaida-arauek, erabakiak hartzeko prozedurak (adostasuna, gehiengoa, etab.), lurraldeko edo gaikako lantaldeak sortzeko aukera, eta adituen parte-hartzea.
- Foroak Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari, Eusko Jurlaritzari, foru-aldundiei eta udalerriei egin diezazkiekeen proposamenak eta gomendioak egiteko, aurkezteko eta horien jarraipena egiteko prozedurak definitzea.

D) EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Deskribatutako testuinguruan, ezinbestekoa da arau-izaerako neurri espezifiko bat egitea, eta ezin da beste irtenbiderik aurreikusi.